

20

22



Programazioa
ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Programazioa ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Zinari dagokionez, 2022a ospakizun-urtea izan zen (Zinemaldia, Kresala...), zinemaldiek eta erakustaldi independenteek jarraipena izan zuten, eta ezin ahaztu gure pantailetara iritsi ziren estreinaldiak ere. Hala ere, zuhurtziaz begiratu behar zaio une batzuetan ikus-entzuleak gutxitu izanari, zerikusia izan baitezake pandemia ondorengo ohitura-aldaketekin.

Tabakalerako Nosferatu zikloak, astean behingo saioekin, **Nazioarteko Zinemaldiaren 70 urteak** ospatu zituen, urte horietan guztietan emandako film luze hautatuen sorta bat eskainiz. Film batzuk ezagunagoak eta beste batzuk ez hainbeste, baina, oro har, harrera desberdina izan zuten ikus-entzuleen aldetik, aurreko urteetako atzera begirakoenak baino apalagoa.



NOSFERATU
ZINEMALDIA 70


URTARRILA-ABENDUA
ENERO-DICIEMBRE
2022

TABAKALERA

DK donostia kultura

EUSKADIKO FILMATEGIA FILMOTEGA VASCA

SSIFF





Menditour 2022 - The Edge of Guillotine © Jan Zahula

Aurten Donostia Kulturak subentzionatutako zinemaldien artean, gure aretoetan egin ziren, osorik edo partez, **Dock of the Bay XVI** (maiatzean), film laburrei eskainitako **Donoskino VI** (urrian), eta **Itsaspeko 46. Zinemaldia** (azaroan).



Kresala zineklubak 50. urte bete zituen, eta ohiz kanpoko ekitaldien artean, zuzeneko musikarekin egindako proiektio bat eta hemen ekoiztutako dokumental baten estreinaldia, ospakizun horri buruzkoa.

Menditour Zine eta Mendi saioek jarraitu egin zuten urtarrilean eta maiatzean, oso harrera onarekin, eta harrera ona izan zuten, halaber, **Zinegoak** zinemaldiaren luzapenak (otsailean) eta **Emakumeen Etxea** ziklo berriak (azaroa), oraingo honetan Marta Mészáros zinegileari eskainia, Tabakalerarekin batera.



Zinegoak 2022 - Nos corps sont vos champs de bataille

Antzoki Zaharrak hainbat eratako **gala ikus-entzunezko eta sozialak** hartu zituen: Larrotxene Kultur Etxearen ikasturte-amaiera gure **Bideoaldia**rekin, AGISAS gala *Bideak Zabalduz* proiektuarekin (azaroan), **Begiradak** erakustaldiaren amaierako gala (azaroan) eta **Homeless Festival** (abenduan). Victoria Eugenia Antzokian, Atzegiko ikasleek beren trebeziak erakutsi zituzten.

Bestalde, bi **dokumental** ere estreinatu dira Donostian: *Tipularen sehaska* eta *The Ying and Yang of Gerry Lopez*.

Euskara Zine Aretoetara programak, Tinkorekin egindako hitzarmen baten ondorio, proiektzio-aretoetara eraman zituen ikasleak, gida praktikoekin batera, ohi bezala, adinaren arabera hautaturiko filmen gaiak lantzeko.

Azkenik, **Bang Bang Zinemak** saio arrakastatsua izan zituen 2022an ere parte hartzearen aldetik; bat, **Beldurrezko Astearekin** lankidetzan egin zen.



The Yin & Yang of Gerry Lopez